



2010-2011
Ikasturtea

GETXOKO EMAKUMEENTZAKO JABEKUNTZA ESKOLA



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



Getxo
bizi ezazu



BASAURIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BASAURI



Komunikazio lerroa

Jende aurrean hitz egiteko teknikak (20 ordu) EUSKERAZ

Urriaren 21etik abenduaren 16ra

Osteguna, 18,00etatik 20,30etara.

Irakaslea: Edurne Mendizabal.

Tokia: Villamonteko kultur etxea.

Prezioa: 5 €.

Ikastaroan zehar gure beldurrak eta komunikazioan esku hartzen duten elementuak zein diren identifikatu behar dugu, horrela, bere ezagutza eta entrenamendutik teknikak eskura ditzagun eta jendaurrean hitz egiteko zailtasunak gainditzeko edozein esparrutan.

Halaber, hizkuntzak errealitateaz dugun ikuspegian nola eragiten dugun ere aztertuko dugu, eta hizkuntza eta komunikazioaren erabilera ez sexista egiteko proposatzen diren alternatibak ikusiko ditugu.

Elkartasuna eta trukea munduko emakumeekin lerroa

Mestizajearen literatura (54 ordu)

Urriaren 20tik maiatzaren 25 arte.

Irakaslea: Josune Muñoz.

Tokia: Villamonteko kultur etxea.

Prezioa: 20 €.

Gizaki guztiak, edozein dela haien kultura, literaturaz, oro har, ahozko literaturaz inguratuta hazi dira. Bi edo kultura gehiago elkartzen direnean, haien literaturak nahasten dira, eta elkarri eragiten diote. Fenomeno hori areagotu da XX. mendean. Mende horretan, hain zuzen, migrazio-mugimenduak handiak izan dira, motei eta lekualdatu diren pertsona kopuruari dago-kienz. Horrela, literatura arloko mestizaje-fenomeno bat sortu da, egunerokotasun eta garrantzi handia duena; XX. mendean dagoeneko klasikoak diren obrak sortu ditu.

Ikastaro honetan, kultura-mestizajearen fenomenoak eta haien gizarte- eta literatura-eraginak ezagutuko ditugu; baita bi kulturek emakumeengan zer eragina duten jakin ere.

Asilo-eskubidea generoarengatiko jazarpenaren aurrean: Jende Eskubideetan oinarritutako erantzuna (7 ordu)

Azaroaren 12 eta 13

Ostirala, 16:00etatik 20:00etara;
larunbata, 10:00etatik 13:00etara

Irakaslea: Itziar Caballero (CEAR-Euskadi).

Tokia: Villamonteko kultur etxea.

Prezioa: 5 €.

Egunero emakumeek sexu horretakoak izateagatik jasaten dituzten giza eskubideak urratzen dira; lesbianak, gayak, bisexualak eta transexualak, haien joera afektibo-sexualarengatik edo duten genero-identitatearengatik. Giza eskubideen urratze larri horiei generoarengatiko jazarpenak esaten diegu.

Parte hartzeko metodologia baten bidez, tailer honetan, asilo-eskubidearen errealitatera hurbilduko gara, genero-ikuspegitik. Horrez gain, Espainiako asilo-sistemak jazarpen horretatik ihes eginez lurralde honetara heltzen diren pertsonen zer erantzun ematen dien aztertuko dugu.

Topagunea: Emakumeak kulturarteko elkarrizketan

Hilean behin (urriak 25, azaroak 24, abenduak 22, urtarrilak 27, otsailak 24, martxoak 31, maiatzak 26)

19,00etatik 21,00etara

Dinamizatzailea: Cony Carranza.

Tokia: Villamonteko kultur etxea.

Prezioa: ekitaldi irekia, izen-ematea ez da beharrezkoa.

Immigrazio Zerbitzuarekin elkarlanean.

Aurreko ikasturtearen esperientzia jarraituz, kulturarteko elkarrizketen topagunea mantenduko dugu.

Bertoko emakumeen eta emakume etorkinen arteko topaketak ahalbideratuko dituzten espazioak sortu nahi ditugu; bertan, elkarren artean esperientziak trukatzeari gain, migrazioaren prozesua gertutik ezagutu ahalko dute, protagonisten ahotan.

Trukerako eta gogoetarako baterako ekimena da, ikuspegi desberdinetatik abiatutakoa. Horri esker, gure komunitatea nola ikusten dugun eta nola eraikitzen dugun azter dezakegu, bizi ditugun errealitate berriak sare-lanean eta elkarren arteko laguntza proposamenetan integrazteko asmoarekin.

Emakumeen Nortasuna eta subjektibotasuna lerroa

Nire gorputzaren bila (10 ordu)

Azaroaren 5 eta 6an

Ostirala, 17,00etatik 20,00etara; larunbata 10,00etatik 14,00etara eta 15,30etatik 18,30etara

Irakaslea: Josune Montón.

Tokia: Gobelako Polikiroldegian.

Prezioa: 5 €.

JANTZI EROSOAK ERAMAN

Gorputza festa. Gorputza lotsa. Gorputza zalaparta. Gorputza kontrol eza. Gorputz osoan min dut. Gorputza negarra. Gorputza bihotza.

Tailer honetan gorputzarekin konektatuko gara, jokoaren bidez esperimintatzeko, gure barneko mapan zehar bidaiatzeko. Norberaren barrurako bidaiak, taldearen laguntzarekin.

Geure burua bilatzeko jokoak proposatzen dizkizuet, edo galtzekoak.

Geure buruaren kontzientzia hartzeko eta gure baldintzapekin apurtzeko. Oraindik ere bilatu ez den altxorra da bakotzaren barruan.

Indarkeria ate azpitik sartzen uzten al dugu? (20 ordu)

Urtarrilaren 31tik apirilaren 4 arte

Astelehenetan, 18:00etatik 20:00etara

Irakaslea: Inma Merino.

Tokia: Jabekuntza Eskola

(Martikoena 16, Alangoko Anbulatorioaren ondoan).

Prezioa: 5 €.

Gorputz-hizkuntzaren bidez geure buruekin eta geure bikoteekin erlazionatzeko modua aztertuko dugu. Ni pertsonala, harremanaren barruan horri eustek eta elikatzeak duen garrantzia eta ez galtzeko zer muga jartzen ditugun landuko ditugu.

Amodiozko loturak eta bikoteen arteko harremanak ere aztertuko ditugu. Gure bikote motari buruzko gogoeta egingo dugu, eta boterea edota tratatu txarrak dauden ikusiko dugu. Botere eta berdintasunezko harremanei buruzko hausnarketak egingo dugu. Horretarako, mehatxatu eta Jabekuntza prozesu pertsonalean eta kolektiboan mugatzen gaituzten arriskuak aztertuko ditugu.

Amaren nahia, egitea eta negoziatzea (12 ordu)**Urtarrilaren 21 eta 22**Ostirala, 16:00etatik 20:00etara; larunbata,
10:00etatik 14:00etara.**Irakaslea:** Norma Vázquez.**Tokia:** Jabekuntza Eskola.**Prezioa:** 5 €.

Amatasuna zientziaren eta jakintzaren, mitologiaren, erlijioaren, artearen edo literaturaren arlo askotatik aztertu dute.

Ikastaro honetan beste ikuspegi bat eman nahi diogu. Amaren rola analisi feministaren bidez aztertuko dugu. Nahi hori gure bizitzara nola heltzen den eta nola adierazten den gogoeta egin nahi dugu; zein nahi senti ditzakegun amatasunaren inguruan, zein eragina duen amaren nahiak gainerako roletan, gure denboraren kudeaketan eta bestelakoetan. Horiek izango dira erantzungo ditugun zenbait galdera, eta funtsezko ardatz nagusi moduan, amatasuna, manu sozial moduan hartuko dugu emakumeen bizitzan.

Feminismo Ierroa

Autodefentsa feminista (12 ordu)

Urriaren 29 eta 30

Ostirala, 16:00etatik 20:00etara;
larunbata, 10:00etatik 14:00etara
eta 15:30etatik 19:30etara

Irakaslea: Maitena Monroy.

Tokia: Gobelako Polikiroldegian.

Prezioa: 5 €.

JANTZI EROSOAK ERAMAN

Erasoak identifikatzen, eta indarkeriak -bere alderdi guztietan- dituen jatorria eta eraikuntza, eta norbanakoan eta taldean dituen ondorioak aztertzen ikasiko dugu. Eguneroko bizitzan gertatzen diren eraso egoerak konpontzeko eta erantzuteko mekanismoak ikasiko ditugu.

Espazio bat sortu gura dugu, geure eskubide eta gaitasunetaz jabetzeko, konfiantza eta segurtasuna sustatzeko, indarkeriaren inguruko mitoak hautsiz eta emakumezkoen ahuldade fisikoari buruzko estereotipo zaharrak desmitifikatuz.

Txapa feministak sortzea (4 ordu)

Abenduaren 10

Ostirala, 17:00etatik 21:00etara

Irakaslea: Josebe Iturrioz (Medeak).

Tokia: Villamonteko kultur etxea.

Prezioa: 5 €.

Lehentasuna emango zaie 30 urtetik beherako emakumei.

Txapak egiten ikasi eta irudi bakoitzaren atzetik zer istorio dagoen jakin nahi al duzu? Zure goiburuak asmatzea, irudiak bilatzea eta zure txapak eta mezuak egitea?

Zatoz txapa feministen tailerrera. Leku lasaia duzu. Eskuz egindako lana pentsamendu, arte eta literatura feministekin nahastuko dugu.

Baina, zer da feminismo delako hori?

(16 ordu)

Urtarrilaren 11tik martxoaren 1 arte

Astearteetan, 18:00etatik 20:00etara

Irakaslea: Miriam Herbón.**Tokia:** Jabekuntza Eskola.**Prezioa:** 5 €.

Feminismoa mugimendu sozial eta politiko moduan azaldu nahi dugu. Haren lorpenak, zailtasunak eta sortu dituen zenbait eztabaida aztertuko ditugu. Eztabaida feministaren elementuak erabiliz, parte-hartzaileen Jabekuntza pertsonal eta kolektiboa handitu nahi dugu. Horretarako, tresna teorikoa erabiliko dugu, errealitatea aztertzeko, genero-harremanak eta emakumeen egoera eta posizioa ulertzeko.

Feminismoa zer den inoiz ez argi ez baduzu izan, hau duzu aukera ona.

**Feminismoa eta ekologia:
naturaren kontrako aliantza?**

(8 ordu)

Apirilaren 8 eta 9

Ostirala, 16:00etatik 20:00etara

Larunbata, 10:00etatik 14:00etara

Irakaslea: Dominique Saillard.**Tokia:** Jabekuntza Eskola.**Prezioa:** 5 €.

Tailer honen helburua da gure jendarteak naturarekin garatu duen harremanaren interpretazio feministak ezagutzera ematea. Ekofeminismoaren jatorri historikoak eta haren garapen eta teoriko eta praktikorako bideak aztertuko ditugu, eta generoaren eta ekologiaren arteko loturak nabarmenduko ditugu.

Emakumeek “ez dakite?”

Ekonomia politikoaz (8 ordu)

Martxoaren 18 eta 19

Ostirala, 16:00etatik 20:00etara

Larunbata, 10:00etatik 14:00etara

Irakaslea: Amaia Pérez Orozco.

Tokia: Jabekuntza Eskola.

Prezioa: 5 €.

Ironiaz mintzatzen zen horrela George Elliot Middlemarch eleberrian (1871) emakumeek, ustez, eta horrela bultzatu dutelako, sistema ekonomikoaren bilakaera ulertzeko duten ezgaitasunari buruz.

Ekonomia politikatik kanpo dagoen ideiarenean, tailer honetan, prozesu ekonomikoak sakonean politikoak direla, eta beraz, haien azterketa feminista egin behar dela egiazta-tuko dugu.

Bizitzaren iraunkortasun-prozesuak aztertu eta aldarrikatuko ditugu, historikoki ikusezin egin dituzten lanak, eta saiatuko gara generoak sistema ekonomikoaren egitura-ardatz moduan duen egitekoak eta gertatzen ari diren aldaketak ulertzen.

Osasuna Ierroa

Sexualitatea lehen pertsonan (20 ordu)

Urriaren 18tik urtarrilaren 24ra

Astelehena, 18,00etatik 20,30etara

Irakaslea: Inma Merino.

Tokia: Villamonteko kultur etxea.

Prezioa: 5 €.

Sexualitate desberdinak eta sexualitatearen adierazpen desberdinak izango dira oinarri ondokoen gainean hausnarketa sakona egiteko: sexualitatea, indarrean diren gizarte mailako mandatuak, tabuak, erruak eta lotsak, urratzeak...

Plazeraren eta arriskuaren arteko harremana ere aztertuko dugu. Lehenari jartzen dizkiogun mugak eta nolatan aurre egin gure gorputz eta gure bikoteekiko harremanei; halaber, aurrean ditugun arriskuak aztertuko ditugu, gure garapen pertsonala erabat murrizten dutenak.

Bestalde, joko eta jostailu sexualak eta pornografia feministaren proposamenak ezagutuko ditugu.

Zoru pelbikoa laguntzea (12 ordu)**Urriaren 18tik azaroaren 10era**

Astelehen eta asteazkenetan 18:00etatik 20:00etara

Irakaslea: Maite Onaindia.**Tokia:** Gobelako Polikiroldegian.**Prezioa:** 5 €.

Zoru pelbikoaren anatomiari, jarrera berriz hezitzeari, gerneru-ihesari, haurdunaldiari eta erditu ondorenari buruzko teoria ikusiko dugu, bai eta gorputza lantzeko alderdi praktiko bat ere. Ikastaroaren asmoa da gure bizi-kalitateari eragiten dioten osasun-arazo batzuei aurre egiten laguntzea eta prebenitzea, horretarako, gure gorputzaren eta sexualitatearen gainean kontrol handiagoa izanda.

Ni zaindu, zu zaindu:**amona zaintzaileentzako tailerra** (15 ordu)**Urriaren 20tik abenduaren 22 arte**

Asteazkenetan, 10:00etatik 12:00etara

Irakaslea: Kontxi López.**Tokia:** Villamonteko kultur etxea.**Prezioa:** 5 €.

Tailer honen helburua da amona zaintzaileen rolari, norberak denborak izateko eskubideari edo berdintasunean eta errespetuan oinarrituz familia-harremanen negoziazioari buruzko gogoeta sustatzea.

Halaber, tresnak eskaintzen ditu nork bere burua zaintzeko, gorputzaren, emozioen eta norberaren nahien kontzientziatik abiatuz. Zaintzea ez da beharra; negoziatu beharreko aukera da, norberaren beharra alde batera utzi gabe.

Hartu atsedenaldia eta parte hartu.

Partaidetza politikoa eta soziala lerroa

Lidergoa eta talde-lana (20 ordu)

Urriaren 18tik urtarrilaren 17ra

Astelehena, 17:00etatik 19:00etara

Irakaslea: Miriam Ocio.

Tokia: Villamonteko kultur etxea.

Prezioa: 5 €.

Espazio publikoan emakumeek lidergoa izateko zergatik dituduzten zailtasunak hausnartuko dugu. Halaber, generoak boterean eta autoritatean duen eraginean, elkarteetan eta bestelako taldeetan parte hartzean ere hausnartuko dugu.

Teknika desberdinak ikasiko ditugu: lantaldeak dinamizatzeko, erabakiak hartzeko eta erantzukizunak banatzeko. Azkenik, bilera bat nola bideratu ikasiko dugu, zailtasunak detektatzeko eta horiek konpontzeko bideak erakusteko.

Kultura berdefinitzen lerroa

Komiki femeninoan sartzen herri desberdinen bitartez (24 ordu)

Urriaren 20tik urtarrilaren 26ra

Asteartea, 19:00etatik 21:00etara

Irakaslea: Josune Muñoz.

Tokia: Villamonteko kultur etxea.

Prezioa: 10 €.

Fenomeno literario guztiekin gertatzen den bezala emakumeok sortu zenetik egon gara komikiaren munduan. Hori gorabehera emakumeek genero honi dagokionez egin dituzten ekarpenak ez dira era egokian baloratu eta ikustezin bihurtarazi dituzte. Mintegi honen xedea komikiak egin dituzten emakumeen historia ezagutzera ematea da eta, horretarako, emakumeen komikien historiaren ibilbidea burutuko da, hala historikoa nola geografikoa, eta aldi berean begirada, historia eta marrazkitik abiatuko den analisia egingo da.

Irakurketa feministak literaturan (Euskaraz) (12 ordu)

Otsailaren 8tik martxoaren 22 arte

Astearteetan 19:00etatik 21:00etara

Irakaslea: Iratxe Retolaza.**Tokia:** Villamonteko kultur etxea.**Prezioa:** 5 €.

Eskolan nahiz komunikabideetan igortzen diguten literatura-hezkuntzaren bidez, literatura arloko testu bat nola irakurri behar den, nola interpretatu behar den, irakasten digute. Ikastaro honetan, bereganatutako irakurketa eredu eta ohi-tuei buruzko gogoeta egingo da, eta interpretazio feministen gakoak aurkeztuko dira.

Artea eta ekintza soziala (16 ordu)

Urtarrilaren 14tik martxoaren 4 arte

Ostiraletan 17:30etik 19:30era

Irakaslea: Estibaliz Alvarez.**Tokia:** Jabekuntza Eskola.**Prezioa:** 5 €.

Pertsonak guztiek dute sortzeko beharra, eta gure bizitzen zati garrantzitsua da. Helburuak, espazioak, egoerak, bizimoduak sortu ahal izatea... sortzeko aukerak aske eta zoriontsu sentiarazten gaitu... adierazten, esperimentatu egiten dugulako.

Horrez gain, adierazteko tresna da artea, gure ideiak, proiektuak, ikuspuntuak hedatzeko baliabide moduan erabiltzen duguna...

Gure begiradaz, gure ingurua hizkuntza desberdinen bidez ikusteko moduz, jabetu nahi dugu, eta gure gogoeten berri eman nahi diogu gizaritari, espazio publikoan parte hartuz.

Banda Feminista

Hiri danborrak, ahotsak, testu eta kaleko mugimendu eszenikoak dituzten emakumeentzako banda-tailerra, ikuspegi feminista batean oinarrituta.

Tailerra maiatzean egingo da, baina datak oraindik berreszteko dira. Izen-emateak apirilean egingo dira, Berdintasun Zerbitzuan.

Tailer hau ekintza bati lotuko zaio eskola sarearen ikasturte amaierako festan.

Irakaslea: Silvia Palumbo.

Aurretiko izen ematea:

Informazioa: tel. 94 466 01 36
berdintasuna@getxo.net

Plazak mugatuak dira, eta aurretik izena emandako emakumeen artean zozketatuko dira. Aurretik izena emateko, inprimaki bat bete beharko da Herritarren Arretarako Bulegoetan, Herritarren Arreta Guneetan edo www.getxo.net web orrialdearen bidez.

Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, bi ikastarotan egin dezake aurretiko izen-ematea (asteburukoetan izan ezik, beste ikastaro batzuekin aldi berean egin daitezkeelako).

Getxon erroldatutako emakumeek lehentasuna izango dute.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten ikasleek, Gazte Txartela dutenek edo langabeziaren txartela dutenek, 5 € ordainduko dituzte ikastaroko.

Aurretik izena emateko epea:
2010eko irailaren 17tik 23ra.

Onartutakoen zerrendak urriaren 1ean argitaratuko dira Romoko eta Villamonteko Kultur Etxeetan eta www.getxo.net web orrian.

EZ DA GUTUNIK BIDALIKO

Matrikula:

Matrikulatzeko epea: **2010eko urriaren 5etik 13ra.**

Aurretik izena emateko eta matrikula egiteko tokia:

Herritarren Arretarako Bulegoak

Ordutegia: 8:00etatik 14:00etara

Algorta: Fuegos, 1

Andra Mari: Benturillena, 17

Ordutegia: 8:00etatik 14:00etara eta 16:30etik

19:00etara (ostiral goizetan bakarrik)

Algorta: Juan Bautista Zabala, 6

Romo: Caja de Ahorros, 3

Ordutegia: 14:00 etatik 20:00etara

Algorta: Alango, 25

HAURTZAINDEGI ZERBITZUA EGONGO DA

EHUK aukera libreko kredituak ematen ditu.
Honek soilik balio du Unibertsidadeko plan zaharretan dauden ikasleentzat.